

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 1290/2020 FORU AGINDUA, ekainaren 10ekoa; horren bidez, 2020ko ekitaldian zehar Bizkaiko gizartearen hainbat eremutan euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzeko jarduerak egiteko diru-laguntzen deialdiak onartu zituzten Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 187/2019, 188/2019 eta 189/2019 Foru-Dekretuetako zein 2019ko abenduaren 17ko 195/2019 Foru Dekretuko epaimahai kalifikatzaileetako kideak izendatzen dira.

2019ko abenduaren 10ean Bizkaiko Foru Aldundiaren 187/2019, 188/2019 eta 189/2019 foru-dekretuak onetsi ziren eta abenduaren 17an, berriz, 195/2019 Foru Dekretua. Foru-dekretu horien bidez, 2020ko ekitaldian zehar Bizkaiko gizartearen hainbat arlotan euskara sustatu, zabaldu eta normalizatzeko jarduerak egiteko diru-laguntzetarako deialdien arautegi arautzailea ezarri zen (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 242 zenbakia, 2019ko abenduaren 19a, osteguna).

Aipatutako foru-dekretuetako 11 oinarriaren arabera, epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da deialdi bakoitzean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko; Saileko foru diputatuak izendatuko du epaimahai hori, foru-agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauko 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Azaldutakoa dela bide, artikulua horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoa-ri buruzko Araudiak eta gainerako baterako xedapenak Euskara, Kultura eta Kirolaren Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10ean Bizkaiko Foru Aldundiaren 187/2019, 188/2019 eta 189/2019 foru-dekretuek zein abenduaren 17ko 195/2019 Foru Dekretuak onetsitako diru-laguntzetarako deialdiei dagozkien epaimahai kalifikatzaileetako epaimahaikideak izendatzea, honako hauek izango direlarik:

- a) Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 188/2019 eta 189/2019 foru-dekretuek eta abenduaren 17ko 195/2019 Foru Dekretuak onartutako deialdietarako:
 - Epaimahaiburu titularra:
 - Xabier Arauzo Uriarte. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
 - Ordezko epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.
 - Epaimahaikide titularrak:
 - Joseba Intxausti Iztueta. EUDELen ordezkaria.
 - Andrés Urrutia Badiola. Euskaltzainburua.



- Alazne Aurre Urzaa. Bizkaiko Foru Aldundiko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologiaren Ataleko burua.
- Ordezko epaimahaikideak:
 - Jone Unzueta Crespo. Bilboko Udaleko_Euskara eta Hezkuntzako Saileko zuzendaria.
 - Dorleta Alberdi Beitia. Euskaltzaina.
 - Nestor Atxikallende Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko burua.
- Idazkari titularra:
 - Leire Ochoa de Aizpuru Ducar. Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko goi-mailako teknikaria, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.
- Ordezko idazkaria:
 - Josu Martinez Serrano. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko goi-mailako teknikaria, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.
- b) Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 187/2019 Foru Dekretuak onartutako deialdirako, berriz:
 - Epaimahaiburu titularra:
 - Xabier Arauzo Uriarte. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
 - Ordezko epaimahaiburua:
 - Andoni Iturbe Amorebieta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.
 - Epaimahaikide titularrak:
 - Andrés Urrutia Badiola. Euskaltzainburua.
 - José Ignacio Mosteiro Robredo. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Plangintzaren arduraduna.
 - Alazne Aurre Urzaa. Bizkaiko Foru Aldundiko Itzulpen, Terminologia eta Hizkuntza Teknologiaren Ataleko burua.
 - Ordezko epaimahaikideak:
 - Dorleta Alberdi Beitia. Euskaltzaina.
 - Miren Arantza Mardaras Izarza. Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuko burua.
 - Nestor Atxikallende Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko burua.
 - Idazkari titularra:
 - Leire Ochoa de Aizpuru Ducar. Bizkaiko Foru Aldundiko Hizkuntza Gizarteratzeko Ataleko goi-mailako teknikaria, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.
 - Ordezko idazkaria:
 - Josu Martinez Serrano. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko goi-mailako teknikaria, hitz egiteko eskubidearekin baina botoa emateko eskubiderik gabe.

Bigarrena: Foru-agindu hau interesdunei jakinaraztea eta Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena: Agintzea foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitara dadila.



AZKEN XEDAPEN

Azken Xedapen Bakarra. — *Indarrean jartzea*

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2020ko ekainaren 10ean.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA